

Ohiko galderak 2009-10 ikasturtea (Iraila - Otsaila)

Nolako ikastaroak daude?

Maila eta ordutegi guztietako ikastaroak daude. Begiratu matrikula orrian edo gure web orrian (www.pnte.cfnavarra.es/zubiarte).

Noiz hasten dira klaseak? Eta bukatu ? Badago zubirik?

Ikasturtea bi ikastarotan banatuta dago: lehena, irailaren 24an hasi eta otsailaren 10ean bukatuko da; bigarrena, otsailaren 17an hasi eta ekainaren 18an bukatuko da. Ikastaro bakoitzak 80 bat egun izango ditu.

Gure egutegia ikastetxe arruntetako bezalakoa da; hau da, eguberritan, Aste Santuan...oporrak ditugu. Beste festak eta zubiak zein diren jakiteko begiratu urteko egutegian. Udan ez dago klaserik.

Taldeak osatzeko arauak. Gutxieneko ikasle kopurua, matrikula ordena, lekurik ez balego...

Taldeak osatzeko kopuru minimoa 12 ikasle dira, gehienez 20. Hala ere, badira salbuespenak:

- Txandakako taldeak osatzeko 24 ikasle behar dira gutxienez eta 40 gehienez, horrek esan nahi du zenbait egunetan 20 ikasle baino gehiago egon daitezkeela klasean.

- Irakasleen taldeetan kopuru minimoa 5 dira.

Taldeak osatu ahala sortzen ditugu; horregatik, garrantzitsua da matrikula ahalik eta lehen egitea. Talde kopurua mugatua izan daiteke, irakasle kopurua, ordutegi bateraezinak edo ikasgela kopurua...

Ikastaldi batetik bestera taldeak ez du derrigor segitu behar; gerta daiteke ikasle kopuru minimoa ez izan eta talde hori ez onartzea.

PREZIOAK ETA MATRIKULAK

Noiz izaten dira matrikulak?

Irailan eta urtarrilan.

Zenbat ordaintzen da?

Matrikula tasak Nafarroako Gobernuak ezartzen ditu urtero. Bi kontzeptu daude:

- Matrikula. Ikastaro eta ordutegien arabera izaten da (ikastaldia, normalean 20 eta 60 euro bitartean).

- Zerbitzu orokorrak eta fotokopiak: 2009-10 ikasturtean 17 euro ikasle bakoitzeko.

Funtzionarioa naiz, matrikula ordaindu behar dut?

Ez, Nafarroako Gobernuko funtzionarioek matrikula dohainik dute; hala ere, gastu orokorrak eta fotokopiak ordaindu behar dituzte. Aurten 17 € dira.

Ez naiz funtzionarioa, baina Nafarroako Gobernurako lan egiten dut

Nafarroako gobernuko langile kontratatuek - behin-behinekoek ere bai - matrikula dohainik dute; hala ere, gastu orokorrak eta fotokopiak ordaindu behar dituzte. Aurten 17 € dira. Matrikula egiterakoan beren egoera justifikatzeko agiria ekarri behar dute: kontratua edo nomina.

Nafarroako Gobernuko ez den beste administrazio bateko funtzionarioa naiz, edo kontratatua naiz.

Ikasle horiek ez dute matrikula dohainik, hala ere, askotan haien administrazioetan diru-laguntzak izaten dituzte. Galdetu zure lantokian edo zure udaleko euskara zerbitzuan.

Matrikula noiz artekoa da?

Matrikula batek lau hilabeteko eskubidea ematen dizu. Irailekoak, irailetik otsaila bitartean; eta urtarrilekoak, otsailetik ekainera.

Beraz, irailean matrikulatu banaiz, eta ikasturte osoan ikasi nahi badut, otsailean egin beharko dut matrikula berriro?

Bai.

Familia ugariko agiria daukat, ba al dago deskonturik?

Bai, matrikularen % 50ekoa. Hala ere, gastu orokorrak eta fotokopiak ordaindu behar dituzte. Aurten 17 € dira. Familia ugari bereziek, matrikularen % 100eko deskontua izango dute.

Langabezian nago, jubilatua naiz edo 65 urtetik gora ditut, ba al dut deskonturik?

Ez.

Nola ordaindu dezaket matrikula?

Matrikula euskaltegian bertan ordain dezakezu kreditu txartelaren bidez. Bestela Nafarroako Kutxako kontuan dirua sartu edo transferentzia egin beharko duzu. Agiria matrikula orriarekin batera ekarri beharko duzu.

Eta gastu orokorrak eta fotokopiak?

Diru hori euskaltegian bertan ordaindu behar duzu esku dirutan matrikula egitean.

Matrikulatu ondoren ezin badut ikastaroa egin, matrikulako dirua berreskuratzen ahal dut?

Bai. Ikastaroa hasi eta lehenengo astean adierazten baduzu ezin zarela etorri, matrikulako dirua berreskuratzen ahal duzu. Gastu orokorrak eta fotokopiak kontzeptuko dirua, berriz, ez.

Edozein arrazoigatik taldea sortzen ez bada, diru guztia berreskuratuko duzu.

Ikasle berria / ikasle zaharra non dago aldea?

Ikasle zaharrak dira aurreko bi ikasturteetan euskaltegian matrikula egin dutenak. Berriak, berriz, beste guztiak.

Zer ekarri behar dut matrikula egiteko?

Matrikula orria beteta, argazki bat zure fitxan itsasteko, matrikula ordaindu duzulako agiria edo kreditu txartela euskaltegian bertan ordaintzeko eta 17 € esku dirutan fotokopiak eta gastu orokorrak ordaintzeko. Ikasle zaharra bazara, ez duzu argazkirik ekarri behar.

Espainiako hiritartasuna ez badut, matrikula egin dezaket?

Bai.

16 urte baino gutxiago badut matrikula egin dezaket?

Ez.

METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA

Nola neurtuko dute nire euskara maila? (ikasle zaharra-berria)

Gurekin aurretik ibili bazara, ebaluazio jarraituaren bidez; ikasle berria bazara bi modu daude: beste euskaltegi bateko agiria erakutsi behar duzu, edo, bestela, euskaltegiko irakasle batekin elkarriketa bat egin behar duzu matrikulatzerakoan. Dena den, gure Web orrian badituzu gure mailen berri eta baita maila bakoitzeko ezaugarriak ere.

Liburu eta bestelako materiala behar al da?

Normalean, ez. Askotariko materiala erabiltzen dugu eta irakasleak erabakitzen du zein den egokiena. Behar izanez gero irakasleak berak esango dizu.

Asistentzia kontrolatzen duzue? Klasetara derrigorrez etorri behar al dut?

Asistentzia kontrolatzen dugu, ebaluazioa egiteko eta – hala eskatzen baduzu - ziurtagiriak egiteko. Etortzea ez da derrigorrezkoa baina bai, jakina, oso gomendagarria.

Azterketarik egiten duzue ikastaldian zehar?

Azterketak egin edo ez irakaslearen esku dago, ebaluazio jarraia eta auto-ebaluazioa bultzatzen dugulako. Dena den, ikasturtearen bukaeran mailako probak antolatzen ditugu, horren ziurtagiria behar dutenendako.

Zein da zuen irakasteko metodologia?

Zaila da lau lerrotan adieraztea, gainera maila batetik bestera aldatu egiten da, dena den, esan dezakegu hizkuntza ikasi baino praktikatu egiten duela ikasleak; trebetasun guztiak lantzen ditugu eta klasean inplikazioa eskatzen dugu.

Zenbat ikasle sartzen dira taldean?

12 gutxienez eta 20 gehienez; hala ere, salbuespenak izan daitezke eta kopuru hori hasieran gaindi daiteke.

Nola ebaluatzen naute?

Hiru ebaluazio mota ditugu:

-Hasierakoa: zein mailatan eta zein taldetan sartu behar duzun jakiteko. Horretarako elkarrizketa bat izango duzu irakasle batekin.

-Jarraitua: ikastaroan zehar irakaslearekin batera auto-ebaluazioa egingo duzu, zure hutsuneak betetzeko, zure lehentasunak markatzeko, ikasteko moduak aldatzeko...

-Mailako proba: ikasturtearen bukaeran (maiatza-ekaina) euskaltegiak mailako probak antolatzen ditu A1, A2, B1 eta B2 mailatan. Azterketa horietara edozein ikasle aurkez daiteke. Azterketa gaindituz gero ikasleak zein maila duen adierazten duen ziurtagiria jasoko du.

Zubiarte Euskaltegiko ikasketak ofizialak dira? Ziurtagiririk ematen dute?

Berez ikasketa ez-arautuak dira. Ziurtagiriak bi motakoak dira: asistentzia ziurtagiriak (zein mailatan zauden eta zenbat ordu egin dituzun); eta, mailako ziurtagiriak (zein maila – A1, A2, B1, B2 - duzun). Azkeneko hori lortzeko, mailako proba egin eta gainditu behar duzu.

Arazorik izanez gero, nora jo dezaket?

Klaseko arazoa bada irakaslearekin hitz egin beharko duzu. Arazoa irakaslearekin baduzu, hitz egin ezazu ikasketa buruarekin edo zuzendariarekin.

Matrikula arazoa bada, pasa zaitez bulegotik.

Liburutegia eta ordenagailu gela nola erabil ditzaket?

Liburutegian liburuak eta bideoak daude maileguan, begiratu noiz dagoen irekita.

Ordenagailu gela irakaslearekin batera erabiltzekoa da.

BESTE GALDERA BATZUK

Zein izango da nire irakaslea?

Talde guztiak sortu ondoren irakasleen klaustroan esleitzen ditugu; beraz, ikastaroa hasi baino lehen ezin da jakin.

Behin kurtsoa hasita, taldez aldatzeko aukera izanen dut?

Bai, beti irakaslearekin mintzatu behar duzu aurretik.

Lehenengo egunean , zer ekarri behar dut klasera?

Ikasteko gogoia eta boligrafo bat.

Zenbat urte beharko ditut euskara ikasteko?

Gogoia eta lanaren arabera. Maila bakoitzeko helburuak jakiteko (gai naiz...) begiratu web orrian edo galdetu irakasleari.